

**DURANGOKO BONBARDAKETAREN 80. URTEURRENA**  
**80 ANIVERSARIO DEL BOMBARDEO DE DURANGO**

2017-03-30 Durango 30-03-2017

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Herri agintariok, bonbardatekaren lekukok, ondorengok, jaun andreok, arratsalde on.

80 urte igaro dira, lehenengo Otxandion, bonbardaketa zutenetik. 80 urte bihar izango dira Durango bonbardatu zutenetik. Ekintza basati hartan hil ziren pertsonak gogorazi nahi ditut lehendabizi: esan bezala, 300 lagun baino gehiago hil zituzten Francoren aginduetara jardun zuten Italiako legio-hegazkinek.

Gertatutakoa gogoratzeko eta gaitzesteko elkartu gara; baita gure konpromisoa aitortzeko eta nabarmentzeko ere. Gaur, nahi duguna da:

- biktima guztiak gogoratu; eta
- herri guztiek jasan zituzten bonbardaketen bidegabekeria gaitzetsi.

Era berean:

- askatasuna eta demokrazia defendatzeko borrokatu zuten pertsonak aintzat hartu; eta
- oroimenari bizirik eusteko konpromisoa dugula azpimarratu.

Conmemoramos el 80 aniversario del bombardeo de Durango y más de 80 municipios, el primero Otxandio. Uno de cada tres municipios de nuestra Comunidad sufrió bombardeos indiscriminados contra la población civil indefensa. Los primeros en la historia.

Hoy, nuestro primer recuerdo, es para las más de 300 personas que fueron asesinadas aquí, en Durango, en un acto atroz cometido por la aviación legionaria italiana a las órdenes de Franco. Los autores e inductores de aquel crimen nunca han reconocido su responsabilidad. Tienen una excelente oportunidad para:

- rechazar el golpe de estado fascista ilegítimo que derrocó la República;
- denunciar los bombardeos indiscriminados contra la población civil;
- condenar los crímenes cometidos; y

-reconocer a las víctimas.

Es un reconocimiento que se debe a Durango y a Euskadi.

Bonbardaketatik 80 urte igaro dira. Krimen haren egile eta eragileek ez dute sekula haien erantzukizuna onartu. Espainiako Gobernuak ez du biktimak aitortzeko eta egile eta eragileek gaitzesteko ekitaldirik bideratu. Ezinbestekoa da altxamendu hura gaitzestea, eta altxamendu hark erorarazi zuen Gobernuaren legitimitatea errebindikatzea.

Hori da Durangori eta Euskadiri zor dioten mezua eta aitortpena. Espainiako Estatuak berak bere buruari zor dion aitortpena.

Hoy en Durango queremos:

- Recordar a todas las víctimas,
- Condenar la injusticia de los bombardeos,
- Reconocer a quienes lucharon en defensa de la libertad y la democracia; y
- Subrayar nuestro compromiso de mantener viva la memoria.

Recuerdo. Condena. Reconocimiento. Compromiso. Esto es lo que nos reúne, y lo que nos une.

Badakigu urte ikaragarriak izan zirela, zailtasunez eta oinazez josiak. Zuek, eta gure artean ez daudenek ere, egoerarik okerreanean jaso zenuten herri hau.

Elkarbizitza, bizikidetza demokratikoa eta Giza eskubideen, Bakearen eta Askatasunaren defentsan oinarritutako gizartea eraikitzen jarraitu zenuten.

Zuen ahaleginari esker, zuek guztiok eta ez dauden ahaleginari esker gara gu. Gure eredu zarete. Geroko belaunaldien eredu ere bai eta Lehendakari gisa eta Euskadiren izenean eskerrak eman nahi dizkizuet.

Bihotzez bada, eskerrik asko.